



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 27a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00213. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00214. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00217. Galdera, Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00218. Galdera, prebentzioko lurralde-ordezkarrien proiektuak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00229. Galdera, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00230. Galdera, Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkieten langile autonomoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00231. Galdera, Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00232. Galdera, abeltzaintzako ustiategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00233. Galdera, erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00235. Galdera, pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00236. Galdera, Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- 11-24/PES-00237. Galdera, Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00238. Galdera, AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00239. Galdera, Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00240. Galdera, Familia Planaren azken ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00241. Galdera, familia plan berri bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00242. Galdera, Familia Planaren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00243. Galdera, jakiteko ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00245. Galdera, 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00246. Galdera, irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00247. Galdera, Otik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00249. Galdera, Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00250. Galdera, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruzkoa ("Sortu eta Hazi" Legea). Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00252. Galdera, "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartea. Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-24/PES-00263. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-24/PES-00280. Galdera, "Epaia betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak" izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202403134 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2024ko apirilaren 12an (/PES-198 galdera), informazioa eskatzeko Eliza katolikoak bere jabetzako nahiz erregistro-titulartasuneko higiezinak birgaitu, berreskuratu eta hobetzeko jaso dituen laguntzei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Leireko eta Irantzuko monasterioak Nafarroako Foru Komunitatearen jabetzakoak dira, eta gozatzeko lagata daude San Benitoren Ordenako Solesmesko Kongregazioari eta Klerigo Erregular-dun Teatinoen Ordenari, hurrenez hurren.

Kontuan hartuta Leireko eta Irantzuko monasterioen balio nabarmena eta kokatuta dauden

ingurune naturala, berorien lorategiek eta jostetaguneez zenbait bisitarirentzako espazio publikoa osatzen dute, eta horrek berekin dakar mantentzeko lan jakin batzuk egin behar izatea, eta horiek ere dute kostu jakin bat. Zaintza eta garbiketako premiak handiagoak dira monasterioetan bizi diren komunitateen erabilera arrunterako beharko liratekeenak baino. Horrez gain, monasterioen inguru-nearen irudiaren mantentzeak bat etorri behar du duten interes historiko eta turistikoarekin.

Baliabide ekonomikoen faltagatik gastu horiek beren gain hartu ezin dituztenez, bertan finkatutako komunitate erlijiosoek lan horiek egin izan dituzte; hasiera batean komunitateko kideek egiten zituzten lanak, eta, geroago, kanpoko langileek. Geroko aurrekontu legeek kasuko gastu partidak jaso dituzte Leireko eta Irantzuko monasterioetako espazio publikoen mantentze-lanetako gastuak finantzatzeko, eta beharrezko dirulaguntza eman dute horretarako.

Horretarako osatutako tauletan adierazten denez, 2000. urtetik 2023ra bitarte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 211.851,09 euro ordaindu ditu guztira Leireko monasteriorako, eta 357.360,75 euro Irantzuko monasteriorako.

2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, martxoaren 13ko 2/2024 Foru Lege bidez onetsitakoek, partida bat jasotzen dute Leireko eta Irantzuko monasterioetako espazio publikoen mantentze-lanak finantzatzeko ere, 33.000 eurokoa, alegia. Monasterio horien alde dirulaguntza emateko izapidea, bakoitzari 16.500 euro eman da, aurrekontu ekitaldi honetan zehar eginen da.

Leireko monasterioaren espazio publikoen mantentze-lanak

URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
2000	LORATEGIKO MANTENTZE-LANAK	4723,48
2001	DIRULAG. BENEDITARREN KOMUNITATE ERLIJIOSOARENTZAT	4.912,51
2002	DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANETARAKO	5.055,00
2003	LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANAK	5.258,00
2004	LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANETARAKO DIRULAGUNTZA	5.415,00
2005	LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANAK	6.344,00
2006	GP 1991124, LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANAK	5.800,00
2007	GP 1991124, LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANAK 2007	5.974,00
2008	LEIREKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANAK 2008	6.225,00
2009	LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIKO MANTENTZE-LANAK 2009	6.312,00
2011	LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIKO MANTENTZE-LANETARAKO DIRULAG. 2010	6.527,00
2012	2011-LEIREKO MONASTERIORAKO DIRULAG. GP 1991124	6.723,00
2014	2014-DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO GASTU ARRUNTETARAKO	13.320,10
2015	GP1991124-2015 DIRULAG. LEIREKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2016	GP1991124 - 2016 DIRULAG. LEIREKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2017	2017-DIRULAG. LEIREKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2018	2018-DIRULAG. LEIREKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2019	2019 DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	14.000,00
2020	2020 DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	15.500,00
2021	2021 DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO-15.500	15.500,00
2022	2022-DIRULAG. LEIREKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO GP2022-21	15.500,00
2023	2023 DIRULAG. LEIREKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO GP 2023-37	15.500,00
		211.851,09

Irantzuko monasterioaren espazio publikoen mantentze-lanak		
URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
2000	2020KO LEHEN SEIHILEKOAN SORTUTAKO GASTUEN ORDAINKETA	8.488,64
2000	2020KO BIGARREN SEIHILEKOAN SORTUTAKO GASTUEN ORDAINKETA	8.488,64
2001	LEHEN SEIHILEKOAREN DIRULAG. ORDAINKETA 01 TEATINOAK	8.491,76
2001	2. SEIHILEKOA DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIORAKO	8.491,76
2002	DIRULAGUNTZAKO ASKOTARIKO LANETARAKO IRANTZUKO MONASTERIOAN	8.491,74
2002	DIRULAGUNTZA 2. SEIHILEKOKO LANETARAKO/2002	8.491,74
2003	KONTURAKO AURRERAKINA IRANTZUKO MONASTERIORAKO DIRULAG.	8.690,61
2003	2003, 2. SEIHILEKOKO DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIORAKO	8.690,61
2004	Monasterioen espazio publikoen mantentze-lanak	9.662,68
2004	Monasterioen espazio publikoen mantentze-lanak	6.281,71
2005	MANTENTZE-LANAK IRANTZUKO MONASTERIOAN ETA INGURUAN	8.237,76
2005	MANTENTZE-LANAK IRANTZUKO MONASTERIOAN ETA INGURUAN	8.237,76
2006	MANTENTZE-LANAK IRANTZUKO MONASTERIOAN ETA INGURUAN 2006	21.344,00
2007	DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANETARAKO	18.245,96
2008	DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANETARAKO (1. SEIHILEKOA.08)	10.792,94
2008	DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO MANTENTZE-LANETARAKO (2. SEIHILEKOA.08)	7.583,86
2009	Lehen seihilekoa-MANTENTZE-LANAK IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIETAN	7.994,24
2009	GP1991124-MANTENTZE-LANAK IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIETAN	9.692,04
2011	IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIKO MANTENTZE-LANETARAKO DIRULAG. 2010	18.473,00
2012	2011-IRANTZUKO MONASTERIORAKO DIRULAG. GP 1991124	19.907,20
2014	2014-DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO GASTU ARRUNTETARAKO	13.320,10
2015	GP1991124-2015 DIRULAG. IRANTZUKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2016	GP1991124 - 2016 DIRULAG. IRANTZUKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2017	2017-DIRULAG. IRANTZUKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2018	2018-DIRULAG. IRANTZUKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	13.315,50
2019	2019 DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	14.000,00
2020	2020 DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO	15.500,00
2021	2021 DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO-15.500	15.500,00
2022	2022-DIRULAG. IRANTZUKO MONASTERIOKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO GP2022-22	15.500,00
2023	2023 DIRULAG. IRANTZUKO LORATEGIEN MANTENTZE-LANETARAKO GP 2023-38	15.500,00
		357.360,75

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00198 galdera idatzia egin du Eliza katolikoak 2000tik 2024ra bitarte bere jabetzako eraikinak birgaitzeko dirulaguntzetan jaso duen zenbatekoari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ondare Historikoaren Zerbitzuak ez du ahalmenik Nafarroako Gobernuaren departamentu guztien datuak biltzeko epe kronologiko hain zabalean eraikinak birgaitu, hobetu eta berreskuratzeari lotuta. Honako datu hauek ematen ditugu: Ondare Historikoaren Zerbitzuak dituen datuak lotuta Nafarro-

ako Gobernuaren titulartasuneko eraikinei (gorria), toki erakundeenak direnei (berdea) eta eraikin pribatuei (horia), adierazita zeintzuk diren Eliza katolikoarenak 2015 eta 2023. urteen artean. Halaber, eraikin eta obra bakoitzeko inbertsioa adierazten da. (1. eranskineko taula).

2000-2014 aldirako informazioa osatzen ari da, ez baitago jasota jardueren memoriak daudenik gaur egun bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

(1. ERANSKINA) ESKU-HARTZEAK ONDARE ARKITEKTONIKOAN 2015-2023


UDALERRIA	HERRIA	MONUMENTUA	JABEA	urteak	inbertsioa	NOHKF
ABARTZUZA	Abartzuza	Irantzuko monasterioa	G	2015/2022	Urteroko konponketak	Urtero daude mantentze-lanetarako inbertsioak
ABARTZUZA	Abartzuza	Irantzuko monasterioa	G	2023	238.500 €	Elizako nabeak
ABLITAS	Ablitas	Gaztelua	U	2019/2020	1.163.000 €	
ALTSASU	Altsasu	Basaluze dorrea	U	2019	226.179 €	
AIEGI	Aiegi	Iratxeko monasterioa	G	2017/2018	559.376 €	Abade-elizaren barrualdea zaharberritzea
AIEGI	Aiegi	Iratxeko monasterioa	G	2019-2020	768.000 €	Abade-elizaren arkeologia eta zoladura
AIEGI	Aiegi	Iratxeko monasterioa	G	2021	192.000 €	Klaustro platereskoaren hegoaldeko estalkia
AIEGI	Aiegi	Iratxeko monasterioa	G	2022	180.458 €	Klaustro errenazentistaren ekialdeko estalkia
AIEGI	Aiegi	Iratxeko Monasterioa	G	2016	170.000 €	Elizaren estalkiak
BAZTAN	Irurita	Dorrea, Jauregia	U	2016-2019-	982.356 €	Zaharberritzea
ZARRAKAZTELU	Zarrakaztelu	La Oliva monasterioa	PR	2023	200.000 €	NOHKF
KASEDA	Kaseda	San Zoilo ermita	U	2021	700.000 €	Estalkia, pitzadurak eta barrualdea zaharberritzea

CORTES	Cortes	harresia	U	2017/2018	428.600 €	
CORTES	Cortes	Ubide Inperialaren gaineko zubia	G	2020	252.500 €	
CORTES	Cortes	Gazteluaren dorrea	U	2022	286.657 €	
CORTES	Cortes	Gazteluaren dorrea	U	2023	122.000 €	Obrara amaiera
LIZARRA	Lizarra	Nafarroako erregeen jauregia/Museoa	G	2018	380.000 €	Igogailua
ESTERIBAR	Saigots	Zubia	U	2020	206.000 €	
ESTERIBAR	Urtasun	Zubia	U	2021	139.000 €	
FITERO	Fitero	Fiteroko monasterioa	G/U	2016	659.000 €	NOHKF (klastroko obrak 8. fasea)
UHARTE ARAKIL	Aralar	Aralarko San Migel	PR	2023	85.361,00 €	Parlamentuaren zuzenketa
IBARGOITI	Getze-lbargoiti	Zubia	U	2017	199.000 €	
IBARGOITI	Getze-lbargoiti	Elizaberria	U	2019-2021	150.000 €	Monasterioaren aurriak sendotzea
ITZA	Larunbe	San Bizente eliza	PR	2015	233.000 €	Estalkia eta fatxada
ITZAGAONDOA	Gergetiain	San Martin eliza.	U	2023	35.802,00 €	
LEITZA	Leitza	Iberoko parajea	U	2017/2018	989.200 €	
LEITZA/GOIZUETA	Leitza/Goizueta	Zubia	U	2018	119.000 €	
LEOTZ	Olleta	Zubia	U	2017	100.000 €	
LESAKA-ETXALAR		Bereau zubia	U	2022-2023	645978 €	
LODOSA	Lodosa	Velasco dorrea (Arrada)	U	2021	703.155 €	Dorrea zaharberritzea 1. fasea
LODOSA	Lodosa	Velasco dorrea (Arrada)	U	2022	256.831 €	Dorrea zaharberritzea 2. fasea
IRUNBERRI	Irunberri	Ida ibaiaren zubia	U	2023	607.000 €	2. fasea 2024an
MARTZILLA	Martzilla	Argiztapena Gaztelua	G	2021	40.000 €	1. fasea
MARTZILLA	Martzilla	Argiztapena Gaztelua	G	2021	37.839 €	2. fasea
ELO	Elo	Txirria zubia	U	2023	46.996€	
NOAIN-ELORTZIBAR	Otano	Zubia	U	2018	188.500 €	
ERRIBERRI	Erriberri	Santa Brígida	U	2019-2021	308.000 €	Baseliza eta horma-irudiak zaharberritzea
ERRIBERRI	Erriberri	Gaztelua, Errege-erreginen jauregia, Jauregi Berria	G	2015	236.600 €	Mantentze-lanak San Jurgi kaperaren inguruan
ERRIBERRI	Erriberri	Gaztelua, Errege-erreginen jauregia, Jauregi Berria	G	2018/2019	595.000 €	Igogailua eta bisitarientzako eremua
ERRIBERRI	Erriberri	Gaztelua, Errege-erreginen jauregia, Jauregi Berria	G	2019	152.161 €	Mantentze-lanak
ERRIBERRI	Erriberri	Gaztelua, Errege-erreginen jauregia, Jauregi Berria	G	2020	190.000 €	Mantentze-lanak

ERRIBERRI	Erriberri	Erriberriko Santa Maria eliza	PR	2015-2016	475.000 €	NOHKF (Santa Maria elizaren aurrealdea)
ERRIBERRI	Erriberri	Erdi Aroko galeriak	U	2022	60.000 €	
ORBAIZETA	Orbaizeta	Arma fabrika, Munizioen Errege Fabrika	U	2018	127.000 €	Desmuntatzea
ORBAIZETA	Orbaizeta	Arma fabrika, Munizioen Errege Fabrika	U	2019	280.000 €	Labeen eraikina
ORBAIZETA	Orbaizeta	Arma fabrika, Munizioen Errege Fabrika	U	2020	336.000 €	Gurbilen ubidea
IRUÑA	Iruña	Iruñeko katedrala, Andre Maria katedrala	PR	2016-2020	3.800.000 €	NOHKF
IRUÑA	Iruña	Nafarroako Museoa	G	2023-2025	2.400.000 €	SEEP efizientzia energetikoa
TAFALLA	Tafalla	Beratxa dorrea	U	2018/2019	148.000 €	
TAFALLA	Tafalla	Mencosen hilobia (Errekoletok)	U	2020	48.400 €	Zaharberritzea
TUTERA	Tutera	Santa Maria eliza, Santa Maria katedrala	PR	2017	180.000 €	NOHKF Judizioaren Atea
TUTERA	Tutera	Magdalena eliza	PR	2022-2023	15.000 €	Aldez aurreko azterketak
TUTERA	Tutera	Uharteko markesaren jauregia	U	2023	54.998 €	
URRAULBEITI	Geretz	San Sebastian eliza.	PR	2015	232.000 €	Estalkia eta fatxada
VALTIERRA	Valtierra	Dorrea	U	2022	239.850 €	
VIANA	Viana	Harresia	U	2019	80.000 €	
VIANA	Viana	Hirigune historikoa harresiaren argiztapena	U	2020	85.000 €	
VIANA	Viana	Vianako Andre Maria	PR	2022-2023	1.149.816 €	Europako funtsak 1. fasea
VIANA	Viana	San Pedro eliza, argiztapena	U	2022	40.000 €	
ESA	Leire	Leireko San Salvatore Leireko monasterioa	G	2021-2022	1.721.000 €	Bisitariantzako zona handitzea
ESA	Leire	Leireko San Salvatore Leireko monasterioa	G	2016	435.500 €	Bisitarien harrera
ESA	Leire	Leireko San Salvatore Leireko monasterioa	G	2017/2018	214.000 €	Ingurua egokitzea
ESA	Leire	Leireko monasterioa, efizientzia energetikoaren SEEP	G	2023-2025	1.700.000 €	SEEP efizientzia energetikoa

Higiezinei buruzko datuak aurreko taulan erantsi dira. Kokapena mapa erantsietan:





11-24/PES-00213. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin a Raquel Garbayo Berdonces andreak gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin dio, idatziz erantzun diezaion (11-24/PES-00213), Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari:

• Zenbat errenta bermatu izapidetu dira Iruñean azken hiru urteotan gizarte-bazterkeria larria dela-eta?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz eman duen informazioa:

2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko apirilaren 30era bitarte, 1.388 errenta bermatu izapidetu dira Iruñean gizarte-bazterkeria larria dela-eta.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00214. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin a Raquel Garbayo Berdonces andreak gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin dio, idatziz erantzun diezaion (11-24/PES-00214), Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari:

• Zenbat errenta bermatu izapidetu dira Nafarroan azken hiru urteotan gizarte-bazterkeria larria dela-eta?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz eman duen informazioa:

2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko apirilaren 30era bitarte, 2.417 errenta bermatu izapidetu dira Nafarroan gizarte-bazterkeria larria dela-eta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00217. Galdera, Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Eneka Maiz Ulaiar andreak eginiko 11-24-00217 zenbakiko galdera idatzia dela-eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

Ezpeleta Jauregiko patioa herritar guztientzat irekita egon da 2019 ikasturteaz geroztik lanegunetan, arratsalde, baldintza jakinetan. Hain zuzen ere, gure ikastetxearen, San Frantzisko ikastetxe publikoko irakasleen eta ikastetxe bereko guraso elkartearen arteko hezkuntza berrikuntzako eta ikaskuntzako proiektu bati esker ireki zen. Irekitze hori eremua zaintzeko eta erabiltzeko baldintza jakinei jarraikiz egin zen. Denborak aurrera egin ahala, konpromiso hori urardotu egin da.

Iruñeko Hezitzaile Eskola Ikastegi Bateratuko zuzendaritza-taldeak jakinarazi digunez, azken bi urteetan egoera arriskuak sortu dira, eta erabilerara arauak ez dira bete, eta ikastetxeko langileak ez dira errespetatuak izan (garbitzaileak, atezainak, etab.). Esate baterako, patioa arrapalara sartzen da jendea, lehen solairura doan horretara (erabaki zen ez zela igotzea baimenduko, eta hesi bat ere jarri zen, baina haurrak sartu egiten dira,

nahiz eta hesi batekin mugatuta egon). Bestalde, ikastetxera sartzen dira, eta, zenbaitetan, haurrak topatu dira ikastetxeko geletan korrika. Gainera, alkohola edaten da eta erre egiten da (ikastetxe bat denez, debekatuta dago). Urtebetetze-jaiak egiten dira, musikarekin, zarata handiarekin... Esan behar da, gainera, garbiketa ikastetxeko langileek egiten dutela (eta ez mankomunitatearen zerbitzuak). Batzuetan, patioa egoera txarrean gelditu da, hondakin ugari utzi dituztelako, erabiltzaileak ez baitira arduratzen sortutako zaborrak botatzeaz.

Patioaren erabilerari buruz adostutako muge-tako bat izan zen ez zirela ikastetxeko komunak erabiliko, baina jendea sartu egiten da behar ez bezala. Atentzioa eman zaie horregatik, baina modu desegokian eta errespetu faltaz erantzuten dute.

Patioa itxita egon denetan, pertsona batzuk kale Nagusitik sartu dira, eta sarbide hori eraikineko ikastetxeetako ikasleek eta langileek soilik erabili beharrekoa da.

Egoera horiek guztiak direla-eta, Iruñeko Hezitzaile Eskola IBko zuzendaritza-taldeak, eraikina-ren eta haren eremuen kudeaketaren arduradun den heinean, erabaki du goizeko ordutegira mugatuko duela patioaren erabilera, San Francisco IPak erabil dezan.

Patioa itxi baino 2 egun lehenago jakinarazi zen erabakia, horma-irudi bat jarrita ikastetxearen atzeko atean (San Frantzisko kalea), aipatutako patioa sarbide zuzena ematen duenean.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00218. Galdera, prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuak betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, eta, haren bidez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Lan Osasunaren Zuzendariordetzaren balorazio-txostena eskatu du, prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuen betetzeari buruzkoa (11-24/PES-00218). Hona hemen kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. CEN-CCOO eta CEN-UGT antolakundeeek prebentzioko lurralde-ordezkarien 2022ko uztailetik 2023ko uztaileira bitarteko proiektuen betetzeari buruzko "azken txosten teknikoak" egin zituzten 2023-07-31ko datarekin. Lan Osasunaren Zuzendariordetzak ba al du horien berri? Programa horren ebaluazioan kolaboratu al dute?

Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiak 2023ko uztailean igorri digu egindako bisiten bi azken txosten teknikoek buruzko dokumentazioa: bata CCOO eta CEN antolakundeei dagokiena da (74 enpresa bisitatu dira), eta bestea UGT eta CEN antolakundeei dagokiena (70 enpresa bisitatu dira). NOPLOren Lan Osasunaren Zuzendariordetzak ez du kolaboratu programaren ebaluazioan, hori ez baitago bere eskumenen artean.

2. Egokiak al dira prebentzioko lurralde-ordezkariek bisitatutako enpresen hautaketa-irizpideak?

3. Egokiak eta aski al dira prebentzioko lurralde-ordezkariek enpresetan baloratutako itemak eta prebentzioko lurralde-ordezkariek haiei buruz egindako adostasun- nahiz desadostasun-balora-

zioko irizpideak? Beste itemen bat sartu beharko al litzateke?

4. Prebentzioko lurralde-ordezkariek enpresei proposatutako jarduketa-neurriak egokiak al dira?

Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da enpresak hautatzeko irizpideak, baloratutako itemak eta jarduketa-neurriak ezartzea.

5. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zuzendariordetzaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren zerbitzu teknikoaren gisa bereko jarduketa-programena baino handiagoa ala txikiagoa da prebentzioko lurralde-ordezkarien programaren kostua?

NOPLOn ez dago antzeko beste programarik, zeinetan erakunde sindikaletako (UGT eta CCOO) langileen eta enpresa-elkarteetako (CEN) langileen baterako bisitak programatzen diren; beraz, ezin dugu kostuen konparaketarik egin.

6. Teilakatu egiten al dira prebentzioko lurralde-ordezkarien bisiten edukiak eta enpresaren, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren zerbitzu teknikoaren nahiz Lan Osasunaren auditoretza-entitateen prebentzio-modalitatea?

Ez. Lan-osasunaren alorrean, enpresa batera zenbait bisita egitea eta ezarritako neurriak balortzea ez da oztopo bat, ezarritako neurrien etengabeko ebaluazioa egiteko aukera bat baizik; betiere, programak behar bezala koordinatuta badaude. Hala eta guztiz ere, gehienetan ez dira bat etortzen prebentzioko lurralde-ordezkarien programan izendatutako EJSNak eta Zuzendariordetzaren alderdi teknikoaren kanpainetan izendatutakoak.

7. Egokiak eta aski al dira enpresetan generodesberdinkeria balioesteko irizpideak?

Irizpide horiek baloratzeko, aholkularitza espezializatuagoa beharko litzateke, hala nola NABI-Nafarroako Berdintasunerako Institutuarena.

8. Zer aldaketa egin beharra dago prebentzioko lurralde-ordezkarien programan, horren eraginkortasuna hobetzeko?

Prebentzioko lurralde-ordezkarien programa Eskubide Sozialetako Departamentuaren Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren

eskumena da. 2024. urte honetako deialdirako eskariari dagokionez, hobekuntza-proposamen teknikoak igorri ditugu, enpresen hautaketarekin eta emaitzen ebaluazioarekin lotutakoak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00229. Galdera, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00229 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohe-siorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. NAV-001, Pamplona/Iruña–Soria emakidari dagokionez:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? 2019ko azaroaren 13an.

Zein da emakida horren mugaeguna? 2029ko azaroaren 12a.

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke? Kontratu-orrietan ez da luzapen-aukerarik jasotzen.

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

2. NAV-002, Pamplona/Iruña–Tafalla. Tafalla-ko eskualdea emakidari dagokionez:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? 2022ko martxoaren 23an.

Zein da emakida horren mugaeguna? 2028ko martxoaren 22a.

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke? Kontratu-orrietan ez da luzapen-aukerarik jasotzen.

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

3. NAV-003, Pamplona/Iruña–Tutera–Zaragoza. Erriberabarrena eskualdea emakidari dagokionez:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? 2023ko martxoaren 1ean.

Zein da emakida horren mugaeguna? 2029ko otsailaren 28a.

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke? Kontratu-orrietan ez da luzapen-aukerarik jasotzen.

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

4. NAV-004, Pamplona/Iruña–Altsasu/Alsasua–Vitoria/Gasteiz. Altsasu/Alsasua eskualdea emakidari dagokionez:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? 2023ko maiatzaren 4an.

Zein da emakida horren mugaeguna? 2028ko maiatzaren 3a.

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke? Kontratu-orrietan ez da luzapen-aukerarik jasotzen.

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00230. Galdera, Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkioten langile autonomoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkioten langile autonomoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin dio (11-24/PES-00230) Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari, eta honako informazio hau eskatzen dio:

- Espainiako Gobernuaren akats baten ondorioz, COVIDa dela-eta jaso zituzten funts galdurako laguntzak itzuli behar dizkiote Gizarte Segurantzari hainbat langile autonomok. Nafarroako Gobernuak ba al daki zenbat langile autonomori eragin dion akats horrek?

- Zenbat milioi euro uste du itzuli beharko dituztela langile autonomo nafarrek hori dela-eta?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziatzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikulua jarduera uzteagatik aparteko prestazio bat ezarri zuen alarma-egoera ezarri izanak ukitutako langile autonomoen zenbait kolektiborentzat.

Artikulu horren 7. atalean xedatzen zen Gizarte Segurantzaren laguntzaile diren mutualitateei zegokiela prestazio hori kudeatzea. Hori horrela, interesdunek entitate horietan aurkeztu zituzten eskabideak, eta entitateek behin-behineko ebazpenak eman zituzten, eta eskatutako prestazioa jasotzeko eskubidea aitortu zuten hala zegokionean.

Behin alarma-egoera bukatutakoan, mutualitateak behin-behineko ebazpenak berraztertzen hasi ziren, onuradunentzat ezarritako eskakizunak betetzen ote ziren aztertzeko, eta bidegabeki jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasi zituzten, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hortaz, Nafarroako Gobernuak ezin ditu eskatutako datuak eman, mutualitateek dutelako informazio hori, inork izatekotan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-24/PES-00231. Galdera, Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-24/PES-00231 galdera idatzia egin du, informazioa eskatzeko Osasun Departamentuaren 2024rako aurrekontuari buruz, 54002 apartatuan (Prestazioak eta Itunak) milioi bat eta berrehun mila (1.200.000) euroko partida bat baitago jasota "Transferentzia arrunta Bidean" kontzeptupean. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zein da Bidean enpresa publikoaren 2024rako aurrekontu-zuzkidura?

1.200.000 €.

2. 2024ko aurrekontuetan jasotzen den "Transferentzia arrunta Bidean" partidako 1.200.000 euroko aurrekontu-zuzkidura transferitu al da?

Gaur egun, ekainaren 4an, transferentzia arrunterako prozedura badago hasita.

3. Baldin eta 1.200.000 euroko aurrekontu-zuzkidura transferitu ez bada, Bidean enpresa publikoa nola edo zer finantzaketa/zuzkidurarekin ari da lanean? NEKPk Bideani 2024ko martxoaren 1ean eman zion 175.000 euroko mailegu baten bitartez.

4. Bidean enpresak zer gastu-aurreikuspen darabil 2025erako?

21.048.999 euro, zeinen aurreikuspena eta banakapena jadanik aurkeztu baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak eskatuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00232. Galdera, abeltzaintzako ustategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak abeltzaintzako ustategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00232 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, abeltzaintzako ustategien eta hiri-saneamenduaren hondakinen kudeaketari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Ultzama, Anue eta Odietako ibarretan abeltzaintzako ustategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketa dela-eta gertatzen ari den arazo estrukturala ikusita, Ingurumen Departamentuak zer neurri hartuko du horiek kudeatzeko?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Ingurumen Ikuskapenen Atalak honako hau erantzuten du:

- Ikuskapena egiteko bisitak Nafarroako jarduera industrialak ikuskatzeko programaren barnean. Adierazi behar da zona horietan dauden mota horretako instalazioek ingurumen baimen bateratuaren araubidearen barruan funtzionatzen dutela, eta ikuskapen programak lehentasuna ematen die ingurumen baimen integratua gisa funtzionatzen dutenei.

- Ibilgura nahita egindako isurketen jarraipena egitea eta kontrolatu gabeko aldi baterako biltegiratzak murriztea Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen aldetik. Noizean behingo jarraipen orokorra egiten da, baita zona zehatzetako jarraipen espezifikagoak ere.

- Abeltzainei informazioa ematea jakinarazteko plater-, haizemaile- eta kanoi-sistemak ordezkatu behar direla, debekatuta baitaude (Nekazaritza lurzoruetan elikadura jasangarrirako arauak ezar-

tzeko irailaren 27ko 1051/2022 Dekretuaren 10. artikulua), eta beste egokiago batzuk jarri behar direla (hodi esekiak), baita ibilguarekiko distantziak bete ere.

- Ultzamako Udalarik ikuskapenaren eredu soila eman zaio bere eskumeneko instalazioak azter ditzan. Udalak egokitzat jotzen badu, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea harekin izanen da lehenengo ikuskapenetan, laguntza teknikoa emate aldera.

- Ultzama ibaiaren kalitatearen harira, NILSA-rekin adostu da P tratamendu bat egitea udan Latasako hiri HUAN eutrofizazioa saiheste aldera.

Bestalde, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Kutsaduraren aurkako Prebentzio Atalean ingurumen baimen bateratua duten Ultzamako abeltzaintza instalazioetako datuak alderatzen ari dira abeltzaintzako zentsuarekin, zehazteko eta gainditzetik dagoen zentsu horren eta emandako ingurumen baimenetan adierazten diren kopuruen artean.

2. Ultzamako biogas-plantaren jarduera berriz abian jartzeko asmorik ba al du? Planta ezertaroko erabiltzen al da gaur egun?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Ingurumen Ikuskapenen Atalak honako hau erantzuten du:

- Ultzamako biogas planta berriz abian jartzeko aurreikuspena Udalaren eskumena da, hura baita berorren titularra. Adierazi behar da jarduera hori berriz abian jartzeko inbertsio handia beharko zela, planta egoera txarrean baitago gaur egun. Departamentuak jotzen du gurugarria dela hura funtzionatzea, inguru horretan mindaren kudeaketa zentralizatzen lagunduko bailuke, baita elektrizitatea ekoizten ere erregai berriztagarri baten bidez, beste erregai fosil batzuen bidez sortzen dena ordezkatzeko; horrez gain, lurtean aplikatzeko den karga organikoa murriztuko luke eta CH4 emisioak ere bai (berotegi efektuko gasa).

Horregatik, Departamentuak Udalarik adierazi dio laguntzeko prest dagoela biometanizazioko instalazioa berriz martxan jartzeko prozesuan, dauden munda deposituak barne.

- Gaur egun biometanizazioko planta ez da erabiltzen ari, baina munda biltegitzeko deposi-

tuak inguruko abeltzainek erabiltzen dituzte beren instalazioetako biltegiatzearen gehigarri gisa.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00233. Galdera, erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echeagaray jaunak erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echeagaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Erosketa Publiko Berritzailearen

Proiektuari buruz (11-24/PES-00233). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetako Ministerioak "Inbertsioa eta Garapena Sustatzeko" deialdian egin behar duen ebazpenaren zain gaude, eta horren kreditua EGEF funtsetakoa da. Behin deialdia ebatzi ondoren proiektuaren azken lizitazioari ekinen diogu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00235. Galdera, pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arnasgailuei buruz (11-24/PES-00235). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Pandemian erosi edota dohaintzan emandako zer arnasgailuk betetzen zituzten –eta zeinek ez– kalitate-estandarrek? Estandarrak betetzen ez zituztenen kasuan, zergatik ez? (Zehaztu arrazoiak, kasuz kasu).

Desberdintzen ahal ditugu, gaingiroki, lekualdatze arnasgailuak, arnasgailu ez inbaditzaileak eta arnasgailu inbaditzaileak.

Lekualdatze arnasgailua ezin da pazientearekin luzerako konektatu muskulatura eta birrikak kaltetuko lituzkeelako.

Arnasgailu ez inbaditzaileak ez ziren egokienak oro har egon ziren biriketako patologietarako. COVID-19a izan zuten pazienteek garatutako patologiak tratatzeko arnasgailurik egokienak arnasgailu inbaditzaileak ziren.

Erositako arnasgailu guztiek zuten gutxieneko kalitatea.

Dohaintzako arnasgailu gehienak ez inbaditzaileak eta lekualdatze arnasgailuak izan ziren, nahiz eta O-NOZen premiek oro har arnasgailu inbaditzaileak eskatu; beraz, horietako zenbait ez ziren erabili. Batzuk erabili egin ziren pazienteentzako arriskurik ez zekarten denbora-tarte txikietan.

– Sor litezkeen beharizanetarako laguntza-eginkizunetan pandemiaren ondotik erabiltzen ari ez diren zenbat arnasgailu daude biltegitan?

Sor litezkeen zer beharizanetan erabil litezke? (Zehaztu kasuz kasu).

Gaur egun 150 arnasgailu inguru daude biltegitan, jarduera asistentzial arrunterako behar ez direnak. Ekipamendu horiek larrialdiko kasuetan eta ezusteko beste egoera batzuetan erabiltzen ahalko dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00236. Galdera, Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00236 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Iruña eta Donostia arteko errepide bidezko hiriarteko garraioaren lineari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Nafarroako Gobernuak laguntza kontratatu du Iruña eta Donostia artean bidaiariak errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko garraio publikoko zerbitzuaren emakidaren ustiapenaren proiekturako, bai eta azterlan ekonomikoa egiteko ere.

– Horretarako kontratatutako enpresa hauxe izan zen: RTB, Consultor Independiente de Transportes.

– Kontratuak xede du laguntza ematea honako hauetarako:

- Zerbitzuak diseinatzeko eta deskribapen teknikoa egiteko laguntza.

- Ustiatzeko aldagaien kalkulua. Ibilgailuak, kilometroak, gidari kopuru baliokidea, ibilgailu kopurua eta gaitasuna.

- Azterlan ekonomikoa.

– Egiteko epea: lau hilabete, 2024ko martxoan zenbatzen hasita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00237. Galdera, Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-24/PES-00237 galdera idatzia egin du Tafallako Errekoletoen eraikineko fatxadak garbitzeko proiektuari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bitartez, ondare historikoa babestu, kontserbatu, katalogatu eta zabaltzeko zereginak gauzatzeko adierazpen artistikoetan, arkeologikoetan eta kidekoetan. Horregatik, mantentzea, zaharberritzea eta kontserbatzea horretarako nazioarteko estandarren arabera garbiketa egitea baino gehiago da.

Halaber, argitu behar dut Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ez duela proiektu bat ere eten, ez aipatu den kasuan ezta beste batean ere. Ondare Zerbitzuak obra proiektuak idazteko hasiera planifikatze du, ez horien egikaritzea, ekintza mota horietan behar den aurrerapenari jarraikiz.

Tafallako Errekoletoen fatxaden kasuan, ez da garbiketa proiektu bat, baizik eta Tafallako Errekoletoen komentu ohiaren elizako iparraldeko eta ekialdeko fatxaden inguratzailea zaharberritzeko proiektu bat. Zaharberritze proiektua aztertze eta idazteko fasean dago. Barnean hartuko du fatxadak garbitzea, karezko mortairuarekin elkartzea, estalkiaren hegala eta erretena konpontzea, harlandu kaltetuak ordeztzea eta eskultura multzoetan eta kanpaitan lanak egitea. Esku-hartzearen analisi teknikoa egin ostean, zehaztu beharko dira kronograma, beharrezko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta inguruan lan egiteko plana, dakartzan afektazioak barne.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak 2024an amaituko du proiektua idazten, era eraikinaren barrualdean esku hartzeko proposamenak baldintzatuko du egikaritzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00238. Galdera, AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, AHTaren Partzuergoaren kontseiluaren deialdiari buruz (11-24/PES-00238). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Itxaron delako administrazio guztiek legegintzaldi berrian kide guztiak izendatu artean.

Oraindik ez da gertaera esanguratsurik egon Etxabakoitzeko UGPSa alegazioak aztertzekeo aldian baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00239. Galdera, Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-24-PES-00239 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hezkuntza Departamentua ez da lanik egiten ari ikerketako batxilergoa arautzen duen araudirik egiteko.

Nafarroako hezkuntza sistema publikoak eskainitako ikerketako batxilergo deritzen ikasketak ikastetxeek berorien antolamenduzko autonomiaren eta autonomia pedagogikoaren esparruan ematen dituzten hezkuntza programak dira. Programa horiek ikastetxe bakoitzak hartutako erabaki metodologikoen barruan daude, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzeko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak araututako batxilergoaren askotariko modalitateetan sartzen dira, ikastetxe bakoitzak erabakitakoaren arabera.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00240. Galdera, Familia Planaren azken ebaluazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Familia Planaren azken ebaluazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00240 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

• Departamentuak hasi al du Familia Planaren azken ebaluazioa?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Plan horren ebaluazioa enkargatzeko espediente izapidetzean hasi da, eta 2024ko bigarren seihilekoan egiteko asmoa dago.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00241. Galdera, familia plan berri bat taxutzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak familia plan berri bat taxutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00241 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

• Departamentuak ba al du beste familia plan bat egiteko asmorik? Hala baldin bada, zer epe ezarri dio bere buruari?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak asmoa du Familien eta Haurren III. Plana idazteari ekiteko 2024ko bigarren seihilekoan, II. Plana ebaluatzen denaldi berean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00242. Galdera, Familia Planaren balorazioari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Familia Planaren balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00242 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

• Noizko uste duzu bukatuko dela Familia Planaren balorazioa?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Aurreikusten da 2024ko amaiera aldera bukatzen ahalko dela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00243. Galdera, jakiteko ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza, 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Lizarrako erditzeak Iruñera deribatzeke arrazoi zehatzari buruz (11-24/PES-00-243). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lizarrako erditzeak deribatzeke arrazoi zehazten dugu:

– Borondatez NOUra joaten diren pazienteak:

• NHC: 7035977

• NHC: 3331794

• NHC: 7094939

• NHC: 384373, NOUn jarraipena 1. hiru hilekoan abortatzeko arriskuagatik.

– Borondatez Logroñora joaten diren pazienteak:

• NHC: 3211850

– Indukzioen programazioak NOUn erditze luzeetarako:

• NHC: 3476459

• NHC: 7047623

– Deribazioak NOUra García Orcoyen ospitaleko Ginekologia Zerbitzutik:

García Orcoyen ospitaleko Ginekologia Zerbitzuaren profesionalen eskasiagatik, ezin zen segurtasun osoz bermatu ohiko jardueraren eta guardien estaldura.

- NHC: 7102999
- NHC: 3062050
- NHC: 3603581

- NHC: 3052338

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Cunchillos Domínguez

11-24/PES-00245. Galdera, 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo

Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00245):

- Zergatik murriztu da 2023an errenta bermatuaren jasotzaileen kopurua?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Lehenik eta behin, eskaera gutxiago egon delako. 2022an 19.834 egon ziren; 2023, berriz, 19.647.

Bigarrenik, ukapenen portzentajea igo egin delako 2022. urtearekin alderatuta. Hori ikus daiteke taula honetan:

URTEA	2022	%	2023	%
Onetsiak	14.732	83	14.448	82
Ukatuak	3.079	17	3.164	18
Beste batzuk	1	0	12	0
Guztira	17.812	100	17.624	100

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00246. Galdera, irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-24/PES-00246 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esaten du etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta bete-

beharra dela, eta hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen ardura. Halaber, Europar Batasunaren gomendioekin bat, helburu gisa ezartzen du hezkuntza sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea. Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko tresna da helburu hori lortu ahal izateko, ezagutzaren gizartean sortzen diren hezkuntza premia berriei erantzutea ahalbidetzen baitu.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren ekainaren 25eko 247/1997 Foru Dekretuak (horren bidez, unitate teknikoak atxikitzen zaizkio Irakasleen hobekuntzako atalari, haren eginkizunak finkatzen dira, eta Irakasleentzako Laguntza Zentroak (ILZ) sortzen dira, beren eragin eremuak esleituta) bosgarren artikuluan jasotzen du irakasleentzako laguntza zentroak sortuko direla Lizarran, Lekarozen, Iruñean, Tafallan eta Tuteran.

Honako hauek osatzen dute prestakuntza sarea Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) zuzendaritza eta aholkularitzekin:

ILZ	ILZko langileak
Lizarra	3
Lekaroz	2
Iruña	16
Tafalla	3
Tutera	4
Guztira	28

Ikastetxe bakoitza irakasleentzako laguntza zentro (ILZ) batera atxikita dago eta erreferentziatzeko aholkulari bat du. Prestakuntzako premiak detektatzeko prozesua gauzatzeko, zentroko aholkulariak elkarrizketa bat izaten du zuzendaritza taldearekin, eta galdetegi bat bidaltzen da irakasleen prestakuntza premiak detektatzeko.

Ildo horretatik, Ikastetxearen Prestakuntza Institutuzionaleko Plan bat ezarriko dute ikastetxeek, zuzendaritza taldeak egina kontuan hartuta nola Hezkuntza Departamentuak berak proposatutako lehentasunezko ildo, plan eta proiektuetatik eratorritako prestakuntzako premiak eta ikastetxeetako irakasle taldeen eta klaustroen lanetik eratorritakoak hala irakasleentzako laguntza zentroek pre-

miak detektatzeko egindako prozesuan detektatutako prestakuntza premiak.

Behin Hezkuntza Departamentuaren, ikastetxeen eta irakasleentzako laguntza zentroen planen eta programen prestakuntza premiak bildu ondoren, irakasleentzako laguntza zentroek (ILZ), Hezkuntza Departamentuaren Prestakuntza eta Kalitate Atalarekin batera, Irakasleen Prestakuntzaren Urteko Plana egiten dute.

Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusia da Nafarroako hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea, ikastetxeek antzemandako beharrei erantzunez eta irakaskuntzako gaitasunen garapena sustatuz. Hori guztia ondoren zehazten

diren sei jarduketa ildo estrategikoen bidez egituratzen da:

- 1. ildo. Ikasleek aktiboki eta lankidetzan ikastea sustatzen duten metodologiak ezartzea, erritmo, estilo eta premia ezberdinei erantzuteko balio dutenak eta gaitasunen ikuspegi inklusibo batetik abiatuak.
- 2. ildo. Hezkuntza teknologiak irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuan txertatzea.
- 3. ildo. Hezkuntza esperientzien eta eskola antolamendu eta kudeaketa arrakastatsuen berrikuntza, ikerketa, zabalkundea eta trukea.
- 4. ildo. Baterako hezkuntzarekiko konpromisoa eta kontzientzia kritikoaren garapena: genero berdintasuna, bizikidetzeta eta tratua ona, erantzukizuna eta justizia soziala, herritartasun globala, jasangarritasuna eta ingurumena.
- 5. ildo. Eleaniztasuna sustatzea, Nafarroako berezko hizkuntzetatik abiatuak eta hizkuntzen tratamendu integratua erabiliz.

- 6. ildo. Laneko arriskuen prebentzioa eta osasun integralaren hobekuntza.

Prestakuntzaren kalitatea bermatzeko, beren alorrean arrakasta handia duten profesionalak hautatu eta kontratatzen dira, eta irakasleek parte hartzen duten prestakuntza jardueretan egiten duen ebaluaziotik eratorritako balorazioak hartzen dira aintzat.

Hori horrela, Prestakuntza eta Kalitate Ataleko langileek eta irakasleentzako laguntza zentroetako (ILZ) askotariko aholkulariek baterako ardura hartzen dute egokituta daukaten eremurako beren urteko prestakuntza planean bildutako jarduerak planifikatzeko, antolatze eta garatzeko, betiere prestakuntza prozesuen ardatz gisa ikastetxea harturik.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00247. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-24-PES-00247 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege

Organikoaren bidez aldatutakoak, hau ezartzen du 15. artikuluan:

“Administrazio publikoek pixkanaka handitu egingo dute lehenengo zikloko plaza publikoen eskaintza, zerotik hiru urtera bitarteko haurren eskolatzeko-eraketa guztiei erantzuteko.”

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau ezartzen du 5. puntuan (Ezagutza, Hezkuntza eta Aukera Berdintasuna): “Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren unibertsalizaziorantz aitzina joatea, doako plaza publikoak sortuz, batik bat ikaslerik kalteberenendako. Baita gainerako lau errentartearako doakoa izan dadin lortuz ere.”

Nafarroako Gobernua, aurrez aipatutakoari jarraikiz, lanean ari da toki-erakundeekin batera doako plaza publikoak sortzeko, aukera ematen dutenak Haur Hezkuntzako lehen zikloa unibertsala eta doakoa izateko xederantz aurrera egiteko.

Une honetan, eta Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) funtsen esparruan, 2024rako Aurrekontuetan badago Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuko partida bat, "SEM 0-3 urteko haurrentzako ikastetxeetako obrak" izenekoa, 5.560.202,00 eurokoa, toki administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzako plazak sortzeko egiten dituzten jarduketak diruz laguntzeko.

Halaber, Hezkuntza Departamentuak Egunsenti izeneko haur-eskola berriaren eraikuntza

esleitu berri du, Erripagañan eginen baita, 5.032.462,06 eurotan.

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren plazak doakoak izateko helburua lortzeko bidean, 2024rako Aurrekontuek aukera ematen dute bermatzeko eskolatzeko tarifak erabat doakoak izanen direla orain arte izan ez diren lau errenta tarteetan ere bai.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00249. Galdera, Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du honako hau jakiteko: "Laborategi-zerbitzurik ematen al dio Nafarroako Gobernuak Guardia Zibilari (SEPRONARI), salaketan ondorioz jasotako ur-laginak direla-eta, Nafarroako lurraldean uren kutsadurako espedienteetarako?" (11-

24/PES-00249). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) laguntza analitikoa eman dio Guardia Zibilaren SEPRONA atalari behar izan duenean.

Adierazi behar dut laborategian laginak modu anonimoan analizatzen direla, eta laginak zenbakiz identifikatzen dira soilik, analisisen konfidentzialtasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko; beraz, ez da jakiten salaketetatik datozen, kutsadurari buruzko espedienteetarako diren eta abar.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00250. Galdera, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruzkoa (“Sortu eta Hazi” Legea)

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruz (“Sortu eta Hazi” Legea) egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea (“Sortu eta Hazi” Legea) dela-eta (11-24/PES-00250). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Transizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa:

Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea (“Sortu eta Hazi” Legea) dela-eta:

1. Zertan eragiten die Nafarroako saltokiei?

Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeak xede du, hitzaurrean jasota dagoenez, enpresak sor daitezela sustatzea eta beren hazkunde bultzatzea, nola arauak hobetuz eta oztopoak ezabatuz jarduera ekonomikoak garatzeko hala laguntza ekonomikoak emanez enpresen hazkunderako.

Hori horrela, lege horrek hainbat neurri jasotzen ditu, beste batzuen artean honako hauek: enpresen sorrera arintzea, araudia hobetzea eta oztopoak ezabatzea jarduera ekonomikoak garatzeko, lehen aipatu bezala, berankortasun komertzialaren aurka borrokatzea, finantzaketa parte hartzaileko plataformen araubide juridikoa eta baterako inbertsioa eta arrisku kapitala sustatzea eta hobetzea.

Neurri horiek guztiek hein batean eragina izaten ahal dute Nafarroako Foru Komunitatean txikizkako merkataritzaren jarduera ekonomikoan. Alabaina, Ansa jaunaren galdera osoaren eta sektoreak Nafarroan duen konfigurazioaren harira,

ulertzen dugu alderdi hauek jorratu behar direla erantzunean: Enpresen sorrera arintzea eta berankortasun komertzialaren aurka borrokatzeko neurriak, arreta berezia jarrita fakturazio elektronikoa.

Sortu eta Hazi Legeak aldatu egiten du uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietatei buruzko Legearen testu bategina. Sortu eta Hazi Legea onetsi arte, erantzukizun mugatuko sozietate bat sortzeko exijitzen ahal zen gutxieneko kapital soziala 3.000 eurokoa zen, eta lege berriak gutxieneko hori euro batean ezartzen du. Aldi berean, Sortu eta Hazi Legeak hartzekodunen interesa babesteko bi neurri ere ezartzen ditu, exijitzen ahal den gutxieneko kapital sozialaren murrizketak berori kaltetzen ahal zuelako. Hauek dira bi neurriak: gutxienez ere mozkinaren % 20 legezko erreserbara bideratzeko betebeharra, legezko erreserbaren eta kapital sozialaren batura 3.000 euro izan arte.

Hartzekodunen interesa bermatzeko bigarren neurri gisa bazkideen erantzukizun solidarioa ezartzen da, 3.000 euroren eta izenpetutako kapitalaren kopuruaren arteko aldeagatik, kasua bada sozietatearen ondarea nahikoa ez dela likidazioa izanez gero sozietateak dituen betebeharrak ordaintzeko.

Nafarroako txikizkako merkataritzaren sektorean nagusi dira langile autonomoak, eta, horregatik, neurri horrek eragiten ahal du horietako batzuek erabaki dezatela jarduera ekonomikoak erantzukizun mugatuko sozietate baten bidez egitea. Edozelan ere, aldaketa hori, gertatuz gero, epe ertain-luzerako izanen litzateke.

Berankortasun komertzialaren aurka borrokatzeari buruzko kapituluan, 18/2022 Legeak aldatu egiten du Informazioaren Gizartea sustatzeko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 56/2007 Legearen 2 bis artikulua. Sektore pribatuaren fakturazio elektronikoko betebeharrari buruzkoa da aldaketa hori.

Lege horretan ezartzen denez, “enpresaburu eta profesional guztiek egin, bidali eta jaso behar dituzte faktura elektronikokoak beste enpresaburu eta profesional batzuekin dituzten harreman komertzialetan”. Horri dagokionez Nafarroako txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresaburu

eta profesionalak ere daude behartuta. Hau da, faktura elektronikoa egiteko betebeharra orokortzen da.

Artikulu berean, geroago, legeak ezartzen du nahitaezkoa dela interkonexio eta elkarreragingarritasun doakoak bermatzea fakturazio elektronikoko zerbitzuak ematen dituzten enpresa hornitzaileen plataforma eta soluzio teknologikoetan. Halaber, lau urteko epea ere ezartzen da, faktura elektronikoa igortzen denetik, beroriek jasotzen dituztenek horien kopia eskatu ahal izateko bestelako kosturik gabe.

Nafarroako txikizkako merkataritzaren sektoreak askotariko egokitze mailak izan ditu fakturazio elektronikoa betebeharrekin, baita sektore barruan ere. Edonola ere, sektorearen zati handi batek dirulaguntzen deialdiak aprobetxatu ditu edo aprobetxatzen ari da fakturazio metodo horren berezko inbertsio teknologikoak egite aldera.

2. Zer epe aurreikusten duzue lege horretan ezarritakora egokitzeko (jarduera ekonomikoaren Ogasunarekiko zuzeneko lotura, sistemaren hautaketa, eta abar)?

Irailaren 28ko 18/2022 Legeak bertan jasotako askotariko xedapenek indarra hartzeko epeak ezartzen ditu azken xedapenetako zortzigarrenean. Epe orokor gisa ezartzen du Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hogeitunak, baina salbuespen honekin:

“(…) enpresaburuen eta profesionalen arteko fakturazio elektronikoa buruzko 12. artikulua izan

ezik, ondoreak izanen baititu, enpresaburuentzako eta profesionalentzako, urteko fakturazioa zortzi milioi eurokoa baino handiagoa dutenean erregelamendu bidezko garapena onetsi eta urtebetera. Gainerako enpresaburu eta profesionalentzako, artikuluak ondoreak izanen ditu erregelamendu bidezko garapena onetsi eta bi urtera”.

Beraz, Nafarroako txikizkako merkataritzaren sektore osorako urte biko epea ezartzen da erregelamendu bidezko garapena onesteaz geroztik fakturazio elektronikoko betebeharrak betetzeko.

Hala ere, eta eskaeran egiten den espezifikazioaren harira, jarduera ekonomikoaren eta Ogasunaren arteko lotura zuzenari eta sistema aukeratzeari buruz, argitu behar dugu Sortu eta Hazi Legea Estatuaren merkataritza alorreko araua dela. Ez ditu arautzen alor fiskaleko eta zergen alorreko alderdiak. Nafarroaren foru eskumenaren babesean, galderan hizpide diren alor fiskaleko gaiak foru araudi propio bidez garatu beharko dira.

Parlamentari jaunak irailaren 28ko 18/2022 Legea jotzen ahal du, aurreikusitako epemugak eta salbuespenak zehaztasun gehiagoz ezagutzeko, honako esteka honen bidez: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-15818>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00252. Galdera, "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarteak Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin a Ángel Ansa Echegaray jaunak "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarteak Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00252) "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarteak Funtzionamendu-gastuak" izeneko 200.000 euroko aurrekontu partidaren barruan 2023an zehar gauzatutako ekintza guztien xehakapena eskatzeko. Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Emandako taulan zergatik ez da jaso 200.000€ horien xehakapen osoa?

Txostena egin zen egunean gauzatutako gastuen xehakapena jasotzen du taulak. Aurrekontuko partida % 100ean dago gauzatuta Kalamua

Ikertzeko Nafarroako Elkarteak aurrerakina jaso zuelako dirulaguntzaren zenbateko osoan. Nafarroako Gobernuaren aurrean hitzarmena teknikoki eta ekonomikoki justifikatzen denean, kontsumitu gabeko zenbatekoa itzuliko da.

3. Zenbat ikertzaile kontratatu ziren? Iker-tzaileek non egin dute beren lana?

Bi ikertzaile kontratatu ziren. Lana landan egin zuten (Borda Blanca finka), baita laborategian ere (Agrobioteknologiako Institutua – IdAB CSIC).

4. Ikertzaile horiei ikerketa honetarako soilik egin al zaie kontratua?

Zein da horien kontratuen iraupena?

Ikertzaile horiei ikerketa honetarako soilik egin zaie kontratua. Kontratuaren iraupena kasu batean 2023-07-05etik 2024-01-04ra bitartekoa izan zen, eta bestean 2023-08-01etik 2023-12-31ra bitartekoa.

5. Zertan datza aurrekontuak jasotzen duen "Borda Blanca finkaren segurtasun-sistema"?

Segurtasun sistema elementu hauek osatzen dute, nola laborantzako eremuan hala lehortegian jarritakoek: telebista zirkuitu itxia, bidegabe sartzea ekiditeko sistema, sarbideen kontrolaren sistema.

6. Partidak 150.000 € dauka 2024rako. Nafarroako Gobernuak zer xehakapen-aurreikuspen darabil partida horretarako?

GUZTIZKO GASTUA				
LANGILEAK	LAGUNTZA TEKNIKOA	ZEHARKAKO GASTUAK	ZUZENEKO GASTUAK	GUZTIZKO GASTUAK
38.625,00	89.468,57	5.793,75	10.600,00	144.487,32

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrera

11-24/PES-00263. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion: "Zein da "fakultatibo espezialisten" eta "beste fakultatiboen" arteko aldea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduera-memoretako tauletan eta zein motatako profesionalak sartzen dira kategoria batean edo bestean?" (11-24/PES-00263). Hona

hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lanpostuen sailkapena 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotakoa da, arau horren 3. artikuluan ezartzen denez:

3. artikulua

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileak, maila edo talde bakoitzaren barruan, foru lege honen eranskinean aipatzen diren estamentu eta espezialitateen arabera sailkatuko dira.

"Fakultatibo Espezialistak" eta "Beste Fakultatibo Espezialista Batzuk" estamentuen sailkapen berezia egiteko, "Fakultatibo Espezialistak" atalean sartu behar dira osasun-espezialitate jakin bat duten A mailako osasun langileak, eta "Beste Fakultatibo Espezialista Batzuk" atalean, berriz, osasun-espezialitate ez duten A mailako osasun langileak, edo, profesional medikoen kasuan, espezialitateari buruzko baldintza hauek dituztenak:

Medikua	Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen zereginei buruzko ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzea edo gradu/lizentziatura horrekin sartzen ahal den edozein espezialitate izatea.
Larrialdietako mediku albokoa	Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen zereginei buruzko ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzea edo gradu/lizentziatura horrekin sartzen ahal den edozein espezialitate izatea.
Familiako eta Komunitateko Medikuntza (OOLT – LZB – LZA – Laguntza)	Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatea edo Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen zereginei buruzko ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzea.

Gaur egun indarrean dauden lanpostuak, O-NOZen memorian adierazitako estamentuetan jasotakoak, honako hauek dira:

Estamentua	Postua
Mediku Espezialistak	BFE/ELKARTUA
	OOLT-KO PEDIATRA
	OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDIETAKO PEDIATRA
	PSIKOLOGO ESPEZIALISTA KLINIKOA
	PSIKIATRA
Osasun arloko beste fakultatibo batzuk	BIOLOGO KLINIKOA
	BOTIKARIA
	ESPETXEKO OSASUNEO ZERBITZUBURUA
	MEDIKUA
	LARRIALDIETAKO MEDIKU ALBOKOA
	OOLT-KO MEDIKU LAGUNTZAILEA
	OOLT-KO MEDIKUA
	MEDIKU IKUSKATZAILEA
	LZB-KO MEDIKUA
	LZA-KO MEDIKUA
	ODONTOLOGOA
	KIMIKARIA (PREB. LAN. SEG. ETA HIG. IND. DIZIP.)
	OSASUNEO GOI MAILAKO TEKNIKARIA (GENETIKA U.)

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00280. Galdera, “Epaia betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak” izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak “Epaia betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak” izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00280 informazio eskaera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenik eta behin, argitu behar da Hezkuntza Departamentuak EH Bildu Nafarroak langile lan-kontratadun mugagabe ez-finkoei buruz eskatu duen informazioa soilik ematen ahal duela Departamentu honek deitutako irakasleen egonkortzeko prozesuetara aurkeztu baldin badira. Egonkortzeko gainerako prozesuen kasuan, merezimendu lehiaketako nahiz oposizio-lehiaketako deialdiak egin dituzten kasuan organoek izanen dute informazioa.

Bigarrenik, gogorarazten da 400000/41000/1820/322000 partida, “Egonkortzeagatiko epaiak, kalte-ordainak eta konpentsazioak betearaztea” deritzona, epai judizialen eta nahitaez bete beharreko ebazpenen ondoriozko betebeharrak artatzeko langileen gastuen kapituluko partida bat dela, eta partida zabalgarria da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/20204 Foru Legearen 5.4.e) artikuluan jasota dagoenarekin bat.

Premisa horietatik abiatuta, erantzuna ematen zaie planteatutako galderei:

1. Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

Hezkuntza Departamentuak deitutako irakasleak egonkortzeko prozesuetan bost langile lan-kontratadun mugagabe ez-finkok hartu dute parte.

2. Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

Hiru pertsonak ez dute plazarik lortu orain arte Hezkuntza Departamentuak deitutako egonkortze prozesuetan. Hala ere, gogorarazi behar da 2024an 20/2021 Legeko enplegua egonkortzeko eskaintzatik eratorritako oposizio-lehiaketako deialdiak gauzatzen ari direla unibertsitateaz kanpoko irakasleen alorrean. Hautaketa prozedura horiek amaitu artean ezin izanen da EH Bilduk eskatutako datua eman.

3. Zenbat diru jaso dute batez beste, kalteordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonak?

Uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen arabera (haren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz), egonkortze prozesu guztiak amaitu artean ezin da zehaztu zenbat pertsonari dagokion konpentsazioa jasotzea, kasua bada.

Aurreko galderaren erantzunean adierazi denez, une honetan 20/2021 Legeko enplegua egonkortzeko eskaintzatik eratorritako oposizio-lehiaketako deialdiak gauzatzen ari dira unibertsitateaz kanpoko irakasleen alorrean.

4. Zenbat iraun du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

Jarraian adierazten da EH Bilduren galderan hizpide diren bost lagunetako bakoitzaren laneko harremana zer egunetan hasi zen, beren egoera aitortzeko epaian finkatutakoarekin bat:

- 1999-09-15
- 1999-10-20
- 2011-09-08
- 2010-10-22
- 2022-11-17

5. EH Bilduk EBJAren 2024ko otsailaren 22ko epaia langile horiei aplikatzeari buruz egindako

bosgarren galderari dagokionez, "Foru Administra-
zioarekin lan harremana izateari utzi baitiote",
adierazi behar da bost pertsona horiek Foru Admi-
nistrazioarekin harremana izaten jarraitu dutela
gaur egun, horietako batek izan ezik, borondatez
egin baitu, bere lan kontratu mugagabeko langile
ez-finkoaren lanpostuan interes partikularragatiko

borondatezko eszedentzia eskatu duelako. Beraz,
oraingoz ezin da aztertu aipatutako epaia langile
horiei nola aplikatu zaien.

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gur-
pegui
